

GAUDEI OSASUNTSU

TJrdail zale porrokatuak izan gera euskaldunok; eta gera, gaur ere, esan bearuko. Moko-fiñak gera, bai, ezin genezake ukatu. Ez, jan-edanetan ez dugu atxakirik, onetan bapo gabiltza-ta. Gure sukalkintza, gaiñera, aomen aundikoa da mundu guztian.

Doiñu: «Donostiako iru damatxu...».

Euskal lurreko giza-semea
egiz dugu eragille,
naiz baserian, naiz-ta kalean
beti dabilzu langille;
—eta pozarren, pozarren,
ardoa edaten—,
beti dabilzu langille.

Euskalduna bai jatun galanta
eta edale obia,
baiña urdaila laster gaixotzen
ipiñi ezik neurria;
eta pozarren, pozarren,
ardoa edaten—,
ipiñi ezik neurria.

Arrasti beeran, min-oiñazetan
ba zabiltzate gogo-txar,
barne zaizute jan-edanaren
samiña puztu ez kaxkar;
eta pozarren, pozarren,
ardoa edaten—,
samiña puztu ez kaxkar.

Euskaldun denok gera ziuarki
ederto jaten dugunak,
eta jaietan —nork guri uka?-
maite ditugu lagunak;
—eta pozarren, pozarren,
ardoa edaten—,
maite ditugu lagunak.

Euskal errian iñon ez beste
dabiltza urdaillez gaizki;
gaitz onen erruz amaika doaz
illobira ere noski;
eta pozarren, pozarren,
ardoa edaten—,
illobira ere noski.

Urdaila dugu eio makiña
beti lanari lotuan,
jan-edariaz lar zanpaz gero
gaizki lebilke eivan;
eta pozarren, pozarren,
ardoa edaten—,
gaizki lebilke eivan.

Gabiltzan beti errazoi bidez,
jan-edanean neurritsu;
barneko gaitzak aienatzeko
dezagun buruz jokatu;
eta pozarren, pozarren,
arloa edaten—,
dezagun buruz jokatu.

Neurriz jan-edan ezkeru —jakin!—
ernego zerala soiñez,
zernaitan lerdin ari izateko
obe zaizu gutxi janez;
—eta pozarren, pozarren,
ardoa edaten—,
obe zaizu gutxi janez.

Indarra dizu oiturak ere,
arritzekoa ez zaizu:
iñor jatunik ba dugu biran
gu ere gaitu zaletu;
—eta pozarren, pozarren,
ardoa edaten—,
gu ere gaitu zaletu.

Bazkal ondoan uda ta negu
loaren pixkat dut artzen;
onek dit berriz lanaren griña
barman neri pizkortzen;
—eta pozarren, pozarren,
ardoa edaten—,
barruan neri pizkortzen.

Euskal erriko langille orok
soiña bear du kementsu,
jan-edanean neurri doi-doia,
atsedenean berdintsu;
—eta pozarren, pozarren,
ardoa edaten—,
astedenean berdintsu.

TXAKOLINA

Maasti bat nainoz dator ederki soro-gurenean. Badu lana iñausi, txertatu, iru aldiz beintzat supratu ta ostoetan gaitzik azaldu ezkeru, sulpatatu, aienak bereiztu, ta abar. Baiña jida-goienez gogo berekoa izan oi zaigu maats umotua, zuri naiz beltz, baserritar majan ere. Goxoago zitzaigu oraindik, udan eguzkiak ziztatzen gaitunean, txakolin

Doiñu: 101 laboren i gaxua